

ZIBERGELA



Leopard: Appleren sistema berria



Maczaileen sistema eragile berriak berrikuntza eta aldaketa ugari dakartza sagarraren sistemarentzat

JOSU WALIÑO
Elhuyar fundazioa

Duela egun gutxi aurkeztu dute Leopard, MacOSXren seigarren bertsioa. Sistema eragile horrek zeresan handia eman du azken hilabeteetan, aurreikusten baitzen Applek hobekuntza nabarmenak eskainiko zituela oraingoan. Eta hala izan da. Ezin esan Leoparden huts egin duenik. Adituek diotenez, Leopard ona baino hobea da: Windows Vistari mila buelta ematen omen dizkio.

Bi urte behar izan ditu Applek sistema berri hau kaleratzeko, baina indarrez iritsi dira. Aurreko sistemarekiko 300 hobekuntza baino gehiago ditu Leoparden, eta horietako batzuk berritzaileak eta ikusgarriak, gainera. Ez da ahaztu behar edozein Maczalek beti esaten duena: MacOSen kopia txar bat

baino ez dela Windows. Ikus dezagun zer eskaintzen digun sagarraren sistema berriak.

Berrikuntza nabarmenak hasieratik

Appleren sistema eragileak beti izan dira ikusgarriak, baina Leoparden nabarmen gaititu ditu orain artekoak. Idazmahaitik hasita, hiru dimentsioko fitxategi kudeatzaile berri bat dakar, eta fitxategiak hobeto antolatzen laguntzen duen Stacks izeneko ezaugarria. Horri esker, karpeta pertsonalizatuak antola daitezke, fitxategiak Dockean pila moduan antolatuz. Ffinderra ere asko hobetu dute. Berrikuntza nagusia da unean uneko pantaila Leopard duen beste erabiltzaile batekin parteka daitekeela. Horretaz gain, Spaces izeneko tresna sortu dute. Linux erabiltzaileentzat aspalditik ohikoa den idazmahai birtualen aukera eskaintzen du Spaces-ek. Hori erabiliz, idazmahai zabaltu daiteke, eta lanerako gune bat baino gehiago sortu idazmahai txikiegia egiten zaienentzat. Fitxategiak zabaltu gabe ikusi ahal izateko, Quicklook izeneko beste aplikazio bat ere gehitu diote. Lana azkartzeko oso baliagarria da tresna hori, eta, horri esker, fitxategi bat zabaltu gabe

Unean uneko pantaila Leopard daukan beste erabiltzaileekin parteka daiteke, besteak beste

haren edukia ikus daiteke, horretarako beharrezkoak diren programak kargatzen ibili gabe.

Denboraren makina

Segurtasuna da sistema berriaren ezaugarrietako bat, eta askotan entzun badugu ere Maczaleek ez dutela birusik pairatu behar izaten, segurtasun arazoak gainditzeko aukera ugari hartu dira kontuan Leoparden.

Ikuspegi horretatik nabarmen-tzen da Time Machine aukera berria. Denboraren makina horrek informazioa ez galtzen laguntzen die erabiltzaileei. Segurtasun kopia egiteko sistema berrikoa da, baina, segurtasun kopia hutsak egiteaz gain, datu batzuk edo karpeta jakin bat nola aldatu den ikus-teko aukera eskaintzen du. Kontuan izan behar da erabiltzaileon segurtasun-arazo nagusia gu geu izaten gara. Arazo horri aurre hartzen saiatu da Apple Time Machine bitartez, Leoparden erabiltzaileei segurtasun kopia modu antolatuan egiteko sistema on bat eskainiz.

Aplikazio berriak

Hobekuntzak ez dira sistemaren ataletara mugatu, ordea. Mac OSak instalatzen dituen aplikazioak ere nabarmen hobetu dira. Nagusiki Interneten lan egiteko Applek eskaintzen dituen aplikazioak: iChat eta Mail. Bi programa horien bertsio berriak datoz Leopardekin.

Horiez gain, modu lehenetsian

dakar orain BootCamp instalatzeko aukera. Programa horri esker, beste sistema eragile batzuk instalatzea Macintosh berean Leopard instalatuta izateaz gain, Windows, Linux edo Solaris bera ere instalatzeko aukera dago Macintosh berean. Baina horretaz lehenago ere aritu gara Ziberge-lan.

Leopard PC batean instalatu

Maczaileen inbidiatan egonez gero, baina sagarraren logoa duten ordenagailu eder horietako bat erosteko behar den dirua gastatu nahi ez baduzu, lasai, dagoeneko asmatu baitute Leopard PC batean instalatzeko bidea. Sistema eragile berria merkaturatu eta hurrengo egunerako argitaratua zuten Interneten hiri egiteko bidea. Dena den, kontuan izan instalazioa ez dela erraza, eta erabiltzaile adituek egiteko aurreikusita dagoela.

Helbide honetan dagojatorrizko azalpena:

@ <http://dailyapps.net/2007/10/hack-attack-install-leopard-on-your-pc-in-3-easy-steps/>
Hemen gaztelaniaz argitaratutako itzulpen bat, informazio osatuarekin:
<http://thezeroblog.wordpress.com/2007/10/29/installar-mac-os-x-leopard-105-en-un-pc/>

Zibergeleko artikulu guztiak:
www.baleike.com/blogak/zibergela

Trikimailua

Posta elektronikoaren erabilera aurreratuak

Posta elektroniko mezuak bidaltzeko baino gauza gehiagotarako ere erabil daiteke. Webgune askok posta elektroniko bidez eragiketarako egiteko aukera eskaintzen dute, eta horrek lana errazten du. Hona hemen adibide batzuk:

pdf@koolwire.com – pdf formatura bihurtu nahi den fitxategia (Office dokumentua, irudia...) helbide horretara posta elektroniko bidali, eta berehala jasotzen da bueltan pdf formatuan.

..@photos.flickr.com – Flickr-ek argazkiak igotzeko helbide elektroniko pertsonala ematen dio erabiltzaile bakoitzari. Helbide hori hemen ikus daiteke: <http://www.flickr.com/account/uploadbyemail/> Hor agertzen den helbidera argazkiak bidali, eta mezuaren gain argazkiaren titulu eta mezuaren gorputzean argazkiaren deskribapena jarri behar dira.

wsmith@wordsmith.org – Ingeles-hiztegi baten zerbitzua eskaintzen du posta elektroniko. Hitz baten definizioa, sinonimoa eta akronimoa jasotzen dira helbide horretara mezu bat bidaliz. Informazio gehiago: <http://wordsmith.org/awad/ws.html>.

www@web2mail.com – Posta elektroniko bidez web orri bat jasotzeko aukera eskaintzen du. Nahikoa da helbide horretara web baten URLa bidaltzea (adibidez, www.berria.info), eta laster batean jasotzen da web orri horren kopia bat posta elektroniko.



Helbidea

Fitxategien luzapena jakiteko helbidea

Askotan, ez dugu jakiten posta elektroniko edo Internet bidez jasotako fitxategi bat zabalitzeko zer programa behar dugun. Window sen kasuan fitxategien luzapenak ematen du informazio hori; hau da, fitxategiaren izenaren eta puntuaren ondoren datozen hiru edo lau letra. Baina luzapen asko eza-gunak badira ere (pdf, doc, jpg, eta abar) beste asko ezezagunak gerta daitezke. Hori argitzeko webgune erabilgarria da [File extensions.org](http://www.file-extensions.org) izenekoa. Gune horretan, fitxategi-luzapenen datu base erraldoi bat kontsultatzeko aukera dago, baita luzapen bakoitza zein programarekin zabaltu daitekeen ere. Hona hemen helbidea: <http://www.file-extensions.org/>.